5792

AGINDUA, 2008ko urriaren 1ekoa, Garraio eta Herri Lan sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan bizikleta-bideak eraikitzeko laguntza-programa ezartzeko 2008ko uztailaren 29ko Agindua, eskabideak aurkezteko epea luzatuta, aldatzen duena.

2008ko abuztuaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Euskal Autonomia Erkidegoan bizikleta-bideak eraikitzeko laguntza-programa bat ezartzeko Garraio eta Herri Lan sailburuaren 2008ko uztailaren 29ko Agindua argitaratu zen.

Aginduaren 3.2 artikuluak ezartzen du eskabideak aurkezteko bi hilabeteko epea utziko dela, agindua indarrean jartzen denetik aurrera kontatzen hasita.

Deialdi honek abiarazitako laguntza-programa berria eta konplexua da ordea, eta gainera, agindua abuztuan argitaratu zen, udako oporren garaian; horrek guztiak zaildu egiten du deialdiaren berri izatea eta laguntzak jaso ditzaketen erakundeek eskabideak prestatzea. Horiek horrela, laguntzetarako deia egiteko aginduan aurreikusitako epea 2008ko azaroaren 17ra arte luzatzea erabaki da.

Horren ondorioz, hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoan bizikleta-bideak eraikitzeko laguntza-programa bat ezartzen duen Garraio eta Herri Lan sailburuaren 2008ko uztailaren 29ko Aginduaren 3.2 artikulua aldatzea, eta honela uztea:

«2.– Eskabideak aurkezteko epea 2008ko azaroaren 17an amaituko da».

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 1a.

Garraio eta Herri Lan sailburua,
NURIA LOPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.

5792

ORDEN de 1 de octubre de 2008, de la Consejera de Transportes y Obras Públicas, por la que modifica la Orden de 29 de julio de 2008, por la que se establece un programa de ayudas para la construcción de carriles bici en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ampliando el plazo de presentación de solicitudes.

Con fecha 21 de agosto de 2008 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco la Orden de 29 de julio de 2008, de la Consejera de Transportes y Obras Públicas, por la que se establece el programa de ayudas para la construcción de carriles bici en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El artículo 3 párrafo 2 de la citada orden determina que el plazo de presentación de solicitudes será de dos meses contados a partir de la entrada en vigor de la orden.

Dado que se trata de una convocatoria que abre un nuevo programa de ayudas que presenta cierta complejidad y estimando que dada la fecha en que se ha publicado la orden, el plazo de presentación de solicitudes coincide en parte con el periodo habitual de vacaciones estivales, lo que dificulta su conocimiento y preparación de solicitudes por las entidades destinatarias de las ayudas, se considera necesaria la ampliación del plazo previsto en la Orden de convocatoria alargándolo hasta el 17 de noviembre de 2008.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo único.– Modificar el párrafo 2 del artículo 3 de la Orden de 29 de julio de 2008, de la Consejera de Transportes y Obras Públicas, por la que se establece el programa de ayudas para la construcción de carriles bici en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado de la siguiente forma:

«2.– El plazo de presentación de solicitudes finalizará el 17 de noviembre de 2008».

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de octubre de 2008.

La Consejera de Transportes y Obras Públicas,
NURIA LOPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.